



**Jose Maria Uzelai IKASTETXEKO
IRAKURKETA-PLANA**

2019-2020

2020-2021



Aurkibidea:

Sarrera

Testuingurua..... 3 orr.
Zentroaren ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan.... 3-5 orr.

Diagnosia..... 6,7 orr.

Helburuak..... 8 orr.

Ekintzen programazioa..... 9-11 orr.

Ebaluazioa..... 12-14 orr.



Sarrera

Testuingurua.

Gure ikastexea Bizkaian, Busturia herriko Altamira auzoan dago. Busturia herria, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean kokatzen da.

Bizkaiko Busturialdea eskualdeko udalerrria da. Oka ibaiaren mendebaldean kokaturik dago. Eskualdeko laugarren hiririk populatuena da, Bermeo, Gernika eta Mundakaren atzetik. Ia 1700 biztanle inguru ditu. Herria bost auzotan banatuta dago: Axpe, Altamira, San Kristobal, San Bartolome eta Paresi. Badirudi, Busturia izenak "bost uri" (bost auzo) esan nahi duela. Gure ikastetxera datozen umeak Busturiako bost auzoetatik eta Sukarrietatik datoz.

Sukarrieta herria ere Busturialdeko udalerrria da, inguru naturalean kokatua, Urdaibai inguruan Gernikako itsasadarraren ezker aldean. 360 biztanle inguru ditu.

Herriak eskaintzen dituen instalazio eta zerbitzuak, Axpe eta Altamira auzoetan kokatzen dira gehiena: Kultur etxea, Udal liburutegia, Udaletxea eta polikiroldegia edo kirol guneak.

Aipatutako zerbitzuak ikastetxeko iharduera edo programan kontutan izaten ditugu ikastetxeko ikasleen eskura daudelako momentu oro eta eskolarekiko duten hurbiltasuna eta eskaintzagatik.

Jose Maria Uzelai Herri eskolak haur hezkuntza eta lehen hezkuntza etapak eskeintzen ditu. Ikasle kopurua 110-120 artean ibiltzen da eta irakasleena 15-18. Gela bakoitzeko batz bestekoa 12koa da eta honek atentzio indibidualizatuagoa eskeintzea ahalbidetzen digu.

Gure eskola txikia eta herrikoia da, beraz, bere ezaugarri esanguratsuena hurbiltasuna da. Denok elkar ezagutzen dugu eta premien arabera kontaktuan berehalakotasunean jartzen gara (ikasle-irakasle, guraso...). Herri txiki bateko eskola txikia denez herriari, auzoari bizigarritasuna ematen dio. Honen bestez, eskolaren funtzioa eta esan nahia herri mailan are garrantzitsuagoa eta handiagoa bihurtzen da.

Zentroaren ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan:

Ikasturtez ikasturte, ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeko helburuari lotutako hainbat jardura egin dira gure ikastetxean. Betidanik arduratu gaituen aspektua izan da irakurketa inguruan eraikitzen baitira hainbat ikaskuntza eta. Ikaskuntzaren ardatz izanik, zenbait ikasturteetan zehar, hainbat dokumentu landu, sortu eta ikasleen irakurtzeko gaitasuna bultzatzeko proposamen ugari izan ditugu.

1. **Hasierako ikasturteetako ebaluazio diagnostikoaren emaitzen azterketa egin ondoren, hobekuntza-planean ahozko eta idatzizko **testu sekuentziazioa adostea** eta **irakurritakoaren ulermen estrategiak ikastetxe mailan lantzea** erabaki genuen:**

Arlo eta gai guztien programazioan, *testu espezifikoaren ulermen gaitasunari bultzada ematea, ulermen estrategia eta testu genero ezberdinen sekuentziazioa adostea testu horien ulermena ikaskuntzak bultzatzeko funtsezkoak dira eta*. Ikastetxeko metodologian eragin bateratua izateko, metodología koherentea eta bateratua lortzeko bideak eraikiz



Ekimen horrek honako jarduera hauek garatzea ekarri zuen:

- Testu-tipo, genero, euskarri eta erabilera ezberdinetarako testuen irakurketa-jarduerak proposatu, askotariko helburuei lotua, *irakurketa bakoitzari ematen zaion helburu desberdina ulertzeko*.
 - *Irakurriaren ulermenari lotutako estrategiak garatzea era bateratuan ikasgai eta arlo guztietan era sistematikoan erabiltzeko*.
 - *Testu sekuentziazioan adostutako testu genero eta testu mota ezberdinak lantzea, eta honen erabilpena kontextu edo zeregin ezberdinetan balioestea*.
 - Irakurriaren ulermenari lotutako ebaluazio-adierazleak txertatu arlo eta ikasgai guztietako programazioetan.
 - *Irakurritakoa ulertzeko gaitasuna handitzeko jarduerak arlo ez linguistikoetan ere proposatzea, hizkuntzen tratamendu integratuan oinarritutako planteamenduaren bitartez*.
 - *Hainbat hizkuntzatan eta hizkera-erregistrotan idatzitako testuak ulertzeko premiaren inguruko jarrera bultzatzea, batez ere, gizartean leku txikiena daukan hizkuntzan sortutako testuak*.
2. 2014-2016 epean aritu izan gara Hizkuntza proiektua eratzen. Hainbat saio erabili genituen irakurketari buruz elkarrekin hausnartzeko. Hona hemen emaitzak:
- *Irakurtzen ikasteko behar diren gaitasunen garapena ziurtatzeko eta oinarritzko trebetasunak eskuratzeko bideak adostea*.
 - *Arlo guztietan bultzatuko da irakurketa ikasteko tresna ezinbestekoa dugu eta*.
 - *Ikasketen ardatza den neurrian, hizkuntza bat baino gehiagotan irakurtzeko ohitura sendotzea*.
 - *Arlo guztietan, programazioan sartzea irakurtzeko ulermenaren garapena bideratzeko estrategiak eta ebaluazioa egiteko irizpide bat behintzat*.
 - *Arlo eta ikasgai guztietan zainduko da irakurketaren ulermen prozesua. Horrenbestez, honako hauek bultzatuko dira:*
 - o *Irakurri aurretik irakurketaren asmoaren arabera ekintza jakinak landuko dira*.
 - o *Irakurritako testuen ulermenari laguntzeko jarduerak egingo dira*.
 - o *Mota ezberdinetako testuak irakurtzeak helburu jakina duela erakutsiko dugu (historia bat kontatu, lan bat prestatzeko informazioa hautatu eta jaso, hipotesiak egiaztatu, eduki gehiago bildu...).*
3. **Hizkuntza Normalizatzeko Proiektua** prest dugu dagoeneko, ikastetxean euskararen erabilpena bultzatzeko eta Normalkuntza batzordea da gure ikastetxean Hizkuntzen tratamendu bateratua bideratzen duena. Horretarako, honako erabaki hauek hartu ditugu:
- *Gelako liburutegiko funtsa handitzean, euskarazko materialei lehentasuna ematea*.
 - *Euskal egileen, obren gainean hizketan jarduteko literatura irakurtzen jardutea. Honela, Euskal idazleen literatur liburuak irakurtzeko proposatzea eta haiekin solasaldiak bultzatzea. Idazleak ikastetxean ekintzarekin bat egitea*.
 - *Liburu ibiltariaren ekintzan biziki parte hartzea eta irakurritz disfrutatze bideak jorratzea*.
 - *Irakurketa sasoi ordutegian sistematizatzea. Irakurketa gozamenara bideratuz irakaslea izango dugu ikasleei irakurriko diona, historio erakargarriak irakurtzeaz gain irakurketa eredu zuzena eskainiko zaie ikasleei. Irakurketaz disfrutatze txokoa eta momentua sortzea*.



- *Ipuin topaketan parte hartzea, ipuin etiologikoen irakurketaren bitartez sormena bultzatzea: ikasleak idazle eraldatzen dira (ipuin etiologikoen irakurketak lagun dituztelarik) eta sortutako ipuinak nagusi eta txikientzako irakurketa erakargarriak bihurtzen dira.*
 - *Irakurketa ekintza: nagusiak txikiei irakurtzea*
4. ***Eleaniztasunerantz proiektuaren garapenean eta gure irakurketa plana eratzeko prozesuan Irakurzaletasunaren lanketa bideratu dugu 18-19 ikasturtean zehar gure ikasleak irakurle zaletuak bihur daitezten:***
- *Klaustro osoak formakuntza jaso du.*
 - *Irakurzaletasuna bultzatzeko hainbat ekintzaren aplikazio bateratua adostu dugu eta jarraipena ziurtatzeko bideak ezarri dira.*
 - *Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.*
 - *Eskolan ikasten eta irakasten diren hizkuntzetan idatzitako liburuak erosi dira, irakurzaletasuna bultzatzeko interesgarriak izan ahal direnak, batez ere euskarakoei lehentasuna emanaz eta aurrekontu bat errespetatuz. Geletako liburutegiak gaurkotu dira.*
 - *Ikastetxe mailan, irakurzaletasunaren lanketa adostua gelan bideratzeko txantiloiak sortu dira:*
 - *Gelako liburutegietan irakurketa liburuen kontrola izateko eta modu eraginkorrean gestionatzeko, zerrendak egin ostean liburuen berri izateko eta beharrianak aztertze.*
 - *Irakasleok egunerokotasunean gure ikasleei ozenean irakurriko dizkiegun liburu erakargarrien zerrenda mailaka osatu dugu. Hauek irakurri ondorengo balorazio erregistroa osatzen dugu, erakargarritasun maila zehaztuz, ikasturtetik ikasturtera behar diren aldaketak txertatzeko.*
 - *Deklamazio tailerra edo ozen irakurtzeko tailerra era barregarrian/ ludikoan lantzeko ariketak landu dira eta gelan aplikatzeko, HHn eta LHn zikloka adostu dira.*
 - *Udaleko eskola ordezkariari Herriko Udal liburutegia birmoldatzeko eskaera bideratu diogu, irakurzaletasuna bideratzeko txoko erakargarri bihurtu dadin.*
 - *Udal liburutegia erabiltzeko txandak adostu ditugu, ikasleei liburuen maileguan trebatzeko.*

Diagnosia

Zentroaren ibilbidea eta aurretik hartutako erabakiak aztertu ondoren, irakurketaren inguruko jarduera didaktikoen autodiagnosia egin dugu, jakiteko zenbateraino garatu diren.

- **Irakurgune web orrialdean diagnostikoa egiteko eskaintzen diren tresnak erabili ditugu. Hasteko, irakurketaren inguruko zentruaren praktika didaktikoen analisia egiteko txantiloia bitartez gure egoera aztertzen dugu:**

- **Irakurtzen ikasten** fasean: hainbat aspektu adostu ditugu aplikatzeko baina aspektu hauek bateratu eta zehaztea falta zaigu. **Beraz, irakurketa-idazketaren prozesua era bateratuan zehaztu beharrean gaude.**

HHn eta LHn arlo linguistikoak eta ez linguistikoak lantzen dituen irakasle berbera izanik arlo guztietarako prozesua arlo guztietan naturaltasunez zabaltzen da. **Irakurtzen ikasten den heinean idatziz... LH1. Zikloka**



minimoetan adostuta dugu ziklo amaiera dela irakurketa idazketa prozesua burutzen den sasoia. Dena dela idatziz zehaztuko da, irakurketa –idazketa prozesuaren zehaztapena bideratzen dugunean.

Eskola liburutegia eta gela liburutegia: irakurketa ikastearen fasean eskola liburutegia egunero era sistematikoan erabiltzen da irakurketarenganako erakargarritasuna sortaraziz eta ikasketa prozesuan motibazioa handituz, fase honetan programatutako jarduerak lantzeko gelako liburutegia erabiltzen da.

- **Ikasteko irakurri** fasean: gure ikastetxean dugun eguneroko praktika didaktikoan maila aurreratuan kokatzen gara curriculum eta hizkuntza ikasgaietako praktika didaktikoan:

** Ikasgai guztietan era bateratuan adostutako ulermen estrategiak erabiltzen ditugu era sistematikoan bai HHn eta Lhn.

**Liburutegiaren erabilpenari dagokionez, fase honetan:

Ikasle askok udal liburutegian egiten dituzte etxeko lanak. **Eskola sasoiak ikastetxe mailan gelako liburutegia da gehien erabiltzen dena eta ikastetxeko liburutegian entziklopediak badaude ere ez dira ia erabiltzen. Ez dugu liburutegia erabiltzen era sistematikoan ikasteko jarduerak burutzeko. Beraz, aspektu hau bultzatu beharrean gaude. Beraz, zehaztu beharrean gaude gela eta eskolako liburutegiaren erabilpena.**

- **Irakurzaletasuna** garatu: aurten jorratu dugu irakurketa planaren fase hau. Klaustro osoak formakuntza jaso dugu eta modu sistematikoan lantzeko bideak ezarri dira.

**Egunerokotasunean ordutegian sistematizatuta dugu irakurketari dedikatzeko denbora eta ikasgai guztietan eta hizkuntza guztietan modu planifikatu eta sistematikoan lantzen da.

Ozen irakurtzeko tailerrak era bateratuan lantzen dira gela guztietan eta ikasturtean zehar ekintzak planifikatzen dira, adib nagusiak txikiei irakurtzea...

Ikastetxean gela liburutegiak ditugu eratuta literatura irakurketekin eta hauek era sistematikoan erabiltzen dira, baina udal liburutegiaren erabilpena gutxitu egin dela somatzen dugu. Argi gelditzen da, udal liburutegia ez dagoela prestatuta eta ez dela egokia ume kopuruak jasotzeko eta ez dela inondik inora irakurzaletasuna bultzatzeko erakargarria. Horregaitik, ikasturte hasierako eskola kontseilu batean udal ordezkariari adierazi zitzaion eta **eskolatik udal liburutegiaren birmoldaketa bat eskatu zen.**

Gure aldetik, udal liburutegiaren erabilpena era sistematikoan hilean behin gutxienez, tutorea bere ikaskideekin joatea, bultzatuko da. Gure ikasleak liburu trukaketa horretan trebatu daitezzen irakurzaletasuna bultzatuz, baina besterik ez, udal liburutegia ez dago prestatuta eta.

- **Familien parte hartzea**: Noizean behin familiei informazioa bideratzen deutsegu baina ez dela nahikoa pentsatzen dugu. Gainera guraso batzuk eskatu egiten dute. **Indartu beharreko aspektua da. Familiei orientabide gehiago emateaz gain parte hartzeko aukera ematea (ipuinak kontatzen gelara...)**

- **Inguruarekiko lotura**: Inguruko jarduera edo ekimenetan parte hartzen dugu eta ikastetxean erakunde ezberdinak ere gustora hartzen ditugu, adb Liburu ibiltaria, idazleak ikastetxean...

-**Irakurketaren inguruko prestakuntza**: aurten klaustro osoak jaso dugu irakurketa prestakuntza eta hurrengo ikasturtera begira ere gure irakurketa plana osatzeko berriro formakuntza jasoko dugu.

☐ Horrez gain, Hausnarketan jardun gara eta zentroaren egoeraren inguruko informazioa pilatu dugu jakiteko zer daukan alde eta zer kontra irakurketaren alde lanean jarduteko.



Irakurketaren inguruko indarrak eta ahuldadeak

IKASTETXEKO ALDERDI DIDAKTIKOEN AZTERKETA. DAFO TRESNA.

INDARRAK	AUKERAK
<p>**Irakurketa planeko ikasteko irakurri eta irakurzaletasun faseak ikastetxean sistematizatuta daude eta era bateratuan aplikatzen dira.</p> <p>*</p>	<p>**Udal liburutegiaren birmoldaketa bultzatu udalaren eta gurasoen laguntzarekin. Birmoldaketa egiten den bitartean, Udal liburutegiaren erabilpena bultzatzen jarraitu liburu trukaketan gure ikasleak ohitzeko.</p> <p>**Irakurzaletasuna era eraginkorrean bultzatzeko familien lana bideratzea.</p> <p>** Familiei orientabideak emateaz gain parte hartzeko aukera ematea (ipuinak kontatzen gelara...)</p>
AHULEZIAK	MEHATXUAK
<p>**Irakurketa-idazketaren ikasketa prozesuan adostuta ditugun hainbat aspektu era bateratuan zehaztea.” Ditugun akordioak, testuak idazten jakiteko irakurtzen ikastearekin bat” zehaztu eta idatziz jaso.</p> <p>**Udal liburutegiaren <u>egoerak ez du laguntzen eta erabilpena gutxitu egin dela somatzen dugu.</u></p> <p>**Gelako liburutegiaren erabilpena zehaztea...</p> <p>**Eskolako liburutegiaren erabilpena zehaztea.</p> <p>**Familiei informazioa eta orientabideak ikasturtean zehar bideratzea eta jarraipena egitea. Ikasturte hasierako batzarretan, Entrebistatan, agendaren bitartez...</p> <p>**Arlo guztietan, programazioan sartzea irakurtzeko ulermenaren garapena bideratzeko estrategiak eta ebaluazioa egiteko irizpide bat behintzat.</p>	<p>*Udal liburutegiaren egoera dela eta ikastetxeko taldeak joateari uztea. Beraz, ikastetxeko taldeak hilean behin gutxienez liburuak trukatzera bideratuko ditugu (bitartean birmoldaketa eskatzen jarraitu indarrak batuz...guraso elkarteak ...).</p> <p>**Kontzientzia fonologikoa lehenetsun moduan hartzen ez dugun artean ikasle askoren irakurketa-idazketa prozesuan ez dugu arrakastarik lortuko.</p>

Helburuak

Irakurtzen ikasi

- Irakurketa-idazketaren ikasketa prozesuaren inguruan klustro osoak formakuntza jasotzea eta irakurketaren ikaskuntza prozesuaren garrantziaren gainean hausnarketa bideratzea.
- Irakurketa-idazketaren ikas-irakaskuntza prozesuan adostuta ditugun hainbat praktika on eta formazioan jasotako aspektuak era bateratuan zehaztea, idatziz jaso eta aplikazio bateratu bideratzea.



- Irakurtzen ikasteko behar diren gaitasunen garapena ziurtatzeko eta oinarrizko trebetasunak eskuratzeko bideak zehaztea adinaren eta heldutasunaren arabera.
- Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea eta aspektu honek duen garrantzia aitortzea.

Ikasteko irakurri

- Eskola liburutegia, informazioa bilatzeko eta irakurtzeko gune apropos gisa, modu eraginkorren erabiltzeko protokoloa zehaztea, idaztea.
- Liburutegiko kontsulta-materiala egokitu eta gaurkotzea eta web baliabideak ere kontuan hartzea.
- Arlo guztietan, programazioan sartzea irakurtzeko ulermenaren garapena bideratzeko estrategiak eta ebaluazioa egiteko irizpide bat behintzat.
- Familiei orientabideak ematea seme-alaben irakurtzeko konpetentzia garatzen laguntzeko.

Irakurzaletasuna garatu

- Irakurzaletasuna ikasgelan modu bateratuan eta sistematikoki garatzearen jarraipena bideratzeko erabakiak adostea, erabilera-eremu askotariko testuen eta, batez ere literatura esparruko irakurketari dagokionez.
- Gelako liburutegia modu eraginkorren erabiltzeko protokoloa idaztea, erabilera askotariko eta eremu desberdinetako testuak, batez ere, literatura eremukoak irakurtzeko gune apropos gisa.
- Udal liburutegiaren erabilera sistematizatzea, liburu trukaketan ikasleak ohituz, eta honen birmoldaketarako bideak bultzatu.(hamabostero, hilean behin).
- Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.
- Eskolako ingurunea aztertu eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea askotariko testuak irakurtzeko, batez ere inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak garatze aldera



Ekintzen programazioa (2019-2021).

Hainbat ekintza prestatu ditugu, helburu horietako bakoitza lantzeko. Hemen daude zehaztuta Planaren lehenbiziko 2 ikasturtetarako, 2019-2021 ikasturteetarako, programatu ditugun ekintzak.

Jarduera-ardatza	Helburua	Ekintza	Iraupena	Baliabideak
. Irakurtzen ikasi	1.1 Irakurketa-idazketaren ikasketa prozesuaren inguruan klaustro osoak formakuntza jasotzea eta irakurketaren ikaskuntza prozesuaren garrantziaren gainean hausnarketa bideratzea.	1.1 Eduardo Herrera eta Edurne Goikoetxearen eskutik irailean zehar klaustro osoak formazioa jaso. Irakurketaren irakaskuntza metodoen inguruan eta gerora sortu ahal diren zailtasunen ezaguera eta esku hartzea.	1.1 Irailean 10saio.	1.1 Formazioa ikastetxean.
	2 Irakurketa-idazketaren ikas-irakaskuntza prozesuan adostuta ditugun hainbat praktika on eta formazioan jasotako aspektuak era bateratuan zehaztea, idatziz jaso eta aplikazio bateratua bideratzea.	1.2 Formazioan jasotakoa aztertu eta adostu gaur egun ditugun poraktika onakin uztartu. Idatziz jaso ikastetxeko metodologia bateratzeko bidea hartuz. Aplikatzeko neurriak hartu.	1.2 Lehenengo eta bigarren hiru hilekoetan.	1.2 Talde dinamizatzailearen bilerak. Ziklo eta etapa bilerak. Formazioako materialak
	3 Irakurtzen ikasteko behar diren gaitasunen garapena ziurtatzeko eta oinarrizko trebetasunak eskuratzeko bideak zehaztea adinaren eta heldutasunaren arabera.	1.3 Ikasmaila bakoitzean erabili beharrekota jaso eta bateratu.	1.3 Bigarren hiru hilekoan	1.3 Talde dinamizatzailearen bilerak. Ziklo eta etapa bilerak. Formazioako materialak
	4 Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea eta aspektu honek duen garrantzia aitortzea.	4 Haur-hezkuntzako ikasleei tarteka ebaluazioa egitea, kontzientzia fonologikoa zenbateraino garatzen ari diren ikusteko. Honen lanketa zehazteko ariketa motak aukeratu eta aplikatu. Proiektuetan lehen hezkuntzako ikasleekin kontzientzia fonologikoa lantzeko ekintzak ere sartzea.	1.4 3. hiru hilekoan. Haur-hezkuntzako tutoreak eta lehen hezkuntzako tutoreak.	1.4 Ebaluazio-frogak. PECO Ebaluazioen erregistro-orriak. E. Jaurilaritzaren web baliabideak. Erregistro-orriak. Ebaluazio-frogak



Jarduera-ardatza	Helburua	Ekintza	Iraupena	Baliabideak
2. Ikasteko irakurri	2.1 Eskola liburutegia, informazioa bilatzeko eta irakurtzeko gune apropos gisa, modu eraginkorrean erabiltzeko protokoloa zehaztea, idaztea.	1 Eskolako liburutegi-mediatekari eman nahi diogun erabilpena zehaztu eta denok era egokian erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klaustro osoaren adostasunez.	1 1. eta 2. hiruhilekoetan.	2.1 Eskolako liburutegi-mediateketarako protokoloak. Berritzeguneak emandako artikuluak. Ekintzaren erregistro-orriak. Talde dinamizatzailea. Eskolako liburutegia erabiltzen duen erregistroa. Gogobetetze-inkestak.
	2.2 Liburutegiko kontsulta-materiala egokitu eta gaurkotzea eta web baliabideak ere kontuan hartzea.	2.2 Liburutegian dauden hainbat kontsulta materialak sailkatu eta baliozkoak erabilpena emateko ordenatu. Premiaren arabera kontsulta material berriak lortu. -Ordenagailua ikasleentzako jartzea eta kontsulta web orrialde zerrendak eratztea.	2.2 Ikasturtean zehar baina batez ere 1. Hiruhilekoan.	2.2 Entziklopediak, aldizkariak, web orriak, ordenagailua... Premiak jasotzeko inkestak.
	2.3 Arlo guztietan, programazioan sartzeari irakurtzeko ulermenaren garapena bideratzeko estrategiak eta ebaluazioa egiteko irizpide bat behintzat.	2.3 Ikastetxean adostuta ditugun ulermen estrategiak arlo guztietan era bateratuan erabiltzea. Arlo guztietako programazioetan Hizkuntza helburuak txertatu eta aplikazioa ziurtatu.	2.3 Ikasturtean zehar	2.3 Arloko programazio didaktikoak adostutako ulermen estrategiak...
	2.4 Familiei orientabideak ematea seme-alaben irakurtzeko kompetentzia garatzen laguntzeko.	2.4 Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.	2.4 Ikasturte hasierako gela bileretan. Hiruhilerokoan entrebista sasoiaren edo premia nabaritzen denean.	2.4 Berritzeguneko aholkularitza eta formazioan jasotakoa. Erregistro-orriak. Gomendio zerrenda edo triptikoa.



Jarduera-ardatza	Helburua	Ekintza	Iraupena	Baliabideak
Irakurzaletasuna	<p>3.1 Irakurzaletasuna ikasgelan modu bateratuan eta sistematikoki garatzearen jarraipena bideratzeko erabakiak adostea, erabilera-eremu askotariko testuen eta, batez ere literatura esparruko irakurketari dagokionez.</p> <p>3.2 Gelako liburutegiak modu eraginkorrean erabiltzeko protokoloa idaztea, erabilera askotariko eta eremu desberdinetako testuak, batez ere, literatura eremukoak irakurtzeko gune apropos gisa.</p> <p>3.3 Udal liburutegiaren erabilera sistematizatzea, liburu trukaketan ikasleak ohituz, eta honen birmoldaketarako bideak bultzatu. (hamabostero, hilean behin).</p> <p>3.4 Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.</p> <p>3.5 Eskolako ingurunea aztertu eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea askotariko testuak irakurtzeko, batez ere inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak garatze aldera</p>	<p>3.1 Gela bakoitzean eta ikasmaila bakoitzean irakasleak irakurriko dituen liburuen zerrenda eratu aurreko ikasturteko ebaluazioa kontutan hartuta. Zehaztutako deklamazio ariketak gela guztietan era bateratuan landu.</p> <p>3.2 Gelako liburutegiari eman nahi diogun erabilpena zehaztu eta denok era egokian erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klaustro osoaren adostasunez.</p> <p>3.3 Udal liburutegia bisitatzeko astero edo hamabostero ordua hartu eta dagokion egunean udal liburutegian ekintza bideratu Eskolako liburutegi karnetarekin gelan irakurtzeko liburuak hartu eta ikasleak dituzten karnetan bitartez gurasoekin liburu mailegua etxekoekin bideratu. HH eta LH.</p> <p>Udalean liburutegiaren birmoldaketa eskaera berriro bideratu.</p> <p>3.4 Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.</p> <p>3.5 Udal liburutegiak gurekin bat eginez antolatzen dituen ekintzatan parte hartu: ipuin kontalariak, ipuin topaketa eta ipuin etiologikoen irakurketa... antolatzen diren ekintzak identifikatu eta ekintzotan parte hartu. Nagusiak txikiei irakurtzeko ekintza... Ozen irakurtzeko tailerrak, irakasleok ikasleei kontatzea, liburu ibiltaria, idazleak ikastetxean eta taldeko irakurketak... Liburua kgabon ostean ikasleen artean trukatu elkarrerri liburuak utziz.</p>	<p>3.1 Ikasturtean zehar.</p> <p>3.2 1. hiru hilekoan</p> <p>3.3 Ikasturtean zehar udal liburutegiaren erabilpena bermatu eta Eskola kontseiluan eskaera luzatu.</p> <p>3.4 Ikasturte hasierako gela bileretan. Hiruhilerokoan entrebista sasoian edo premia nabaritzen denean.</p> <p>3.5 Ikasturtean zehar orokorrean eta espezifikoki egunerokotasunean bazkal ostean.</p>	<p>3.1 Ekintza era bateratuan sistematizatzeke erreg ikasmailaka eta zikloka adostutako deklamazio tailerrak</p> <p>3.2 Gelako liburutegiaren protokoloak. Berritzegun emandako artikulua. Ekintzaren erregistro-ordua. Talde dinamizatzailea. Gogobetetze-inkestak.</p> <p>3.3 Erabilpenaren kontrola eta gogobetetze ikestak. Mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenen erregistroa.</p> <p>3.4 Berritzeguneko aholkularitza eta formazioan jasotakoa. Erregistro-orriak. Gomendio zerrenda edo triptikoa.</p> <p>3.5 Eskola inguruan irakurketa bultzatzeko sortzen diren ekintzak. Zentroak, inguruko erakundeekin batera, prestatu duen ekintzen dossierra. Ekintzetan parte hartu dutenen erregistroa.</p>



Ebaluazioa

PLANAREN GARAPENAREN EBALUAZIOA (2019-2020 eta 2019-2020an jarraipenaren balorazioa luzatuko da.
(2019-2021IKASTURTEETAN ZEHAR)

Jarduera Ardatza	Helburua	Ekintza	BETETZE MAILA eta BALORAZIOA
1. Irakurtzen ikasi	<p>1.1 Irakurketa-idazketaren ikasketa prozesuaren inguruan klaustro osoak formakuntza jasotzea eta irakurketaren ikaskuntza prozesuaren garrantziaren gainean hausnarketa bideratzea.</p> <p>1.2 Irakurketa-idazketaren ikas-irakaskuntza prozesuan adostuta ditugun hainbat praktika on eta formazioan jasotako aspektuak era bateratuan zehaztea, idatziz jaso eta aplikazio bateratua bideratzea.</p> <p>1.3 Irakurtzen ikasteko behar diren gaitasunen garapena ziurtatzeko eta oinarritzko trebetasunak eskuratzeko bideak zehaztea adinaren eta heldutasunaren arabera.</p> <p>1.4 Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea eta aspektu honek duen garrantzia</p>	<p>1.1 Eduardo Herrera eta Edurne Goikoetxearen eskutik irailean zehar klaustro osoak formazioa jaso. Irakurketaren irakaskuntza metodoen inguruan eta gerora sortu ahal diren zailtasunen ezaguera eta esku hartzea.</p> <p>1.2 Formazioan jasotakoa aztertu eta adostu gaur egun ditugun poraktika onakin uztartu. Idatziz jaso ikastetxeko metodologia bateratzeko bidea hartuz. Aplikatzeko neurriak hartu.</p> <p>1.3 Ikasmilla bakoitzean erabili beharrekoa jaso eta bateratu.</p> <p>4 Haur-hezkuntzako ikasleei tarteka ebaluazioa egitea, kontzientziafonologikoa zenbateraino garatzen ari diren ikusteko. Onen lanketa zehazteko ariketa motak aukeratu eta aplikatu ... oiektuetan lehen hezkuntzako ikasleekin kontzientzia fonologikoa lantzeko ekintzak ere sartzea.</p>	



Jarduera Ardatza	Helburua	Ekintza	BETETZE MAILA eta BALORAZIOA
<p>2. Ikasteko irakurri</p>	<p>2.1 Eskola liburutegia, informazioa bilatzeko eta irakurtzeko gune apropos gisa, modu eraginkorrean erabiltzeko protokoloa zehaztea, idaztea.</p> <p>2.2 Liburutegiko kontsulta-materiala egokitu eta gaurkotzea eta web balia bideak ere kontuan hartzea.</p> <p>2.3 Arlo guztietan, programazioan sartzea irakurtzeko ulermenaren garapena bideratzeko estrategiak eta ebaluazioa egiteko irizpide bat behintzat.</p> <p>2.4 Familiei orientabideak ematea seme-alaben irakurtzeko kompetentzia garatzen laguntzeko.</p>	<p>2.1 Eskolako liburutegi-mediatekari eman nahi diogun erabilpena zehaztu eta denok era egokian erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klaustro osoaren adostasunez.</p> <p>2.2 Liburutegian dauden hainbat kontsulta materialak sailkatu eta baliozkoak erabilpena emateko ordenatu. Premiaren arabera kontsulta material berriak lortu. -Ordenagailua ikasleentzako jartzea eta kontsulta web orrialde zerrendak eratztea.</p> <p>2.3 Ikastetxean adostuta ditugun ulermen estrategiak arlo guztietan era bateratuan erabiltzea. Arlo guztietako programazioetan Hizkuntza helburuak txertatu eta aplikazioa ziurtatu.</p> <p>2.4 Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.</p>	



Jarduera Ardatza	Helburua	Ekintza	BETETZE MAILA eta BALORAZIOA
<p>3. Irakurzaletasuna</p>	<p>3.1 Irakurzaletasuna ikasgelan modu bateratuan eta sistematikoki garatzearen jarraipena bideratzeko erabakiak adostea, erabilera-eremu askotariko testuen eta, batez ere literatura esparrukoak irakurketari dagokionez.</p> <p>3.2 Gelako liburutegiak modu eraginkorrean erabiltzeko protokoloa idaztea, erabilera askotariko eta eremu desberdinetako testuak, batez ere, literatura eremukoak irakurtzeko guneei apropos gisa.</p> <p>3.3 Udal liburutegiaren erabilera sistematizatzea, liburu trukaketan ikasleak ohituz, eta honen birmoldaketarako bideak bultzatu. (hamabostero, hilean behin).</p> <p>3.4 Familiei orientabideak ematea irakurzaletasuna seme-alabengan sustatzeko.</p> <p>3.5 Eskolako ingurunea aztertu eta eskaintzen dituen aukerak baliatzea askotariko testuak irakurtzeko, batez ere inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak garatze aldera</p>	<p>3.1 Gela bakoitzean eta ikasmaila bakoitzean irakasleak irakurriko dituen liburuen zerrenda eratu aurreko ikasturteko ebaluazioa kontutan hartuta. Zehaztutako deklamazio ariketak gela guztietan era bateratuan landu.</p> <p>3.2 Gelako liburutegiari eman nahi diogun erabilpena zehaztu eta denok era egokian erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klaustru osoaren adostasunez.</p> <p>3.3 Udal liburutegia bisitatzeko astero edo hamabostero ordua hartu eta dagokion egunean udal liburutegiaren ekintza bideratu Eskolako liburutegi karnetarekin gelan irakurtzeko liburuak hartu eta ikasleak dituzten karnetan bitartez gurasoekin liburu mailegua etxekoekin bideratu. HH eta LH. Udalean liburutegiaren birmoldaketa eskaera berriro bideratu.</p> <p>3.4 Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.</p> <p>3.5 Udal liburutegiak gurekin bat eginez antolatzen dituen ekintzetan parte hartu: ipuin kontalariak, ipuin topaketa eta ipuin etiologikoen irakurketa... Zentroaren inguruan irakurketa bultzatzeko antolatzen diren ekintzak identifikatu eta ekintzetan parte hartu. Nagusiak txikiei irakurtzeko ekintza... Ozen irakurtzeko tailerrak, irakasleok ikasleei kontatzea, liburu ibiltaria, idazleak ikastetxean eta taldeko irakurketak... Liburuak gabon ostean ikasleen artean trukatu elkarrerik liburuak utziz.</p>	